



GEUREA IRRATIZ IGORTZEN

Talde baten esperientziak, bizipenak eta istorioak oinarri hartuta, irratsaio bat sortzea.

HELBURUAK	METODOLOGIA	PARTE-HARTZAILEAK	IRAUPENA
<ul style="list-style-type: none"> • Partaide-taldean jarrera parte hartzailea eta sortzailea lortzea. • Parte-hartzaileak “euren bizitzaren erreportari” lanetan jartzea. • Inguruko mundua aztertzeko duten gaitasuna suspertzea. • Nerabe-taldearen interesen eta kezken berri izatea. 	<p>Parte hartzailea, analitikoa, diskurtsiboa eta sortzailea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Interesatzen zaizkien gaien eta kezken aukeraketa. • Aurrekoen inguruko eztabaida. • Irratsaioa eraiki. • Eszenaratzea, grabaketa. 	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaile kopurua: 10. • Adina: 14 – 18. 	<ul style="list-style-type: none"> • 3 saio: 2h/s.

Argitaratzailea:



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Laguntzailea:

Arabako Foru Aldundia



Diputación Foral de Alava

GAZTEDIAREN FORU ERAKUNDA



INSTITUTO FORAL DE LA JUVENTUD

GEUREA IRRATIZ IGORTZEN

PKTENTERES EN AZALEAN AGERTU NAHI AL DUZU? KONTAGUZU!

pkntereres@vitoria-gasteiz.org



0. TESTUINGURUA

Lantegi hau *PKTexpres*es Lantegi-programaren (2006-2008) barruan kokatzen da. Vitoria-Gasteizko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren menpe sortutako ekimena da eta hiriko hainbat gazte-kolektiboekin batera, prozesu parte hartzaile eta kolaboratzaileak bultzatzen ditu, talde-lana, inguruaren azterketa eta espirtu (auto)kritikoa sustatuz.

Lantegietan landutako edukiak *PKTenteres* aldizkarian argitaratzen dira (azalean eta bi orrialde). *PKTenteres* (PKT) 14 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako hileroko argitaratzen den informazio-aldizkari dinamiko eta parte hartzailea da, Vitoria-Gasteizko Gazteria Sailaren menpe dago eta Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoarekin (GAUB) elkarlanean egiten da.

Info+ *PKTenteres*: www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres

Info+ GAUB: www.vitoria-gasteiz.org/omij

1. GEUREA IRRATIZ IGORTZEN

GEUREA IRRATIZ IGORTZEN: Irratsaio bat egitea.

Komunikazio-lantegia da. Parte-hartzaileen kezka eta ardurak plazaratuko dituen irratsaioa egingo dugu. Ikuspuntu ofiziala edo orokorra alde batera utzi eta gazteen esperientziak, ikuspuntuak eta iritziak kontuan hartuz, albisteak eta edukiak sortuko ditugu. Gazteak eurak izango dira haien bizitzaren erreportari.

Irratsaio bat egiteak aukera emango die komunikabideen inguruan hausnarketa egiteko eta edukiak eta berriak nola sortu eta komunikatzen diren ikasteko.

Aldizkari kolaborazioari eman zaion behin betiko izenburua honako hau izan da: **Eta zuri... zer axola zaizu?**

2. HELBURUAK

Hona hemen *PKTexpres*es lantegien helburu orokorrak:


- *PKTenteres* aldizkaria gazteengana hurbiltzea eta euren adierazpide eta tresna gisa sentiaraztea.
- Gasteizko gazteen arteko parte-hartzea eta elkarlana sustatzea.
- Gazteen beharrak ezagutzea eta haietara hurbiltzea.
- Gaur egungo gazteria indartzea eta hari hitza ematea.
- Talde-lana sustatzea.
- Nerabeen arteko elkarrizketa eta espirtu kritikoa bultzatzea.
- Elkartasuna eta begirunea sustatzea.
- Gazteen eta erakundeen arteko hurbilketa-formulak sortzea.
- Inguruko mundua aztertzeke duten gaitasuna suspertzea.

*PKTexpres*es lantegiak Gasteizko Udalaren lantegi-programan kokatzen dira. Bertan sortzen diren eztabaidek eta edukiak *PKTenteres* aldizkariaren edukiak osatuko dituzte.



Lantegitik ateratako eta aldizkarian argitaratutako behin betiko edukiak.

Jaits ezazu *PKTenteres* 55.zbk. (2008ko apirila)
www.vitoria-gasteiz.org/pkntenteres



Lan-prozesua.

- Hiritar aktibo gisa sormenean eta edukien zabalkundearen bizkortzea.
- Nerabeen interesak eta kezkek ezagutzeko.
- Haien sormen-gaitasuna bizkortzea.
- Haien jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.

Irrati-lantegiaren helburu zehatzak honako hauek dira:

- Gazteei euren jarduerak aurrera ateratzeko tresnak eskaintzea.
- Hiritar aktibo gisa sormenean eta edukien zabalkundearen bizkortzea.
- Berdintasun eta genero kontuak lantzea.
- Inguruko mundua aztertzeke duten gaitasuna suspertzea.
- Gazteen sormen-gaitasuna bizkortzea.
- Espiritu kritikoa eta autokritikoa bultzatzea.
- Parte-hartzaileak "euren bizitzaren erreportari" lanetan jartzea
- Nerabe-taldearen interesen eta kezken berri izatea.

3. EDUKIAK

Landuko ditugun gaiak:

- Komunikazioa eta komunikabideak.
- Irratia.
- Eduki desberdinak eta eduki bakoitzarentzako formatu egokiena: elkarrizketa, iragarkia, albistea, etab. Formatuak eragin zuzena izango du gidoia egiterakoan.
- Esperientzia pertsonalak eta parte-hartzaileen interesak.

4. METODOLOGIA ETA EKINTZAK

Metodologia parte hartzailea, diskurtsiboa, analitikoa eta sortzailea izango da. Taldearen esperientzia pertsonalak abiapuntu hartuta, irratsaio bat egingo dugu.

- Eztabaida eta edukien aukeraketa.
- Formatuen aukeraketa.
- Gidoia egin.
- Partaide bakoitzari zereginak eta rolak banatu.
- Grabaketa entseatu.
- Irratsaioaren grabaketa.



Lan-prozesua.

Parte-hartzaileen azterketa- eta kritika –gaitasunak sustatzea.



Lantegiko lan-prozesuaren irudiak.



Lantegiko lan-prozesuaren irudia.

5. LANTALDEA

Parte-hartzaile kopurua: 7 – 10 lagun.

Adina: 15 – 18 urte.

Sexua: Gehienak mutilak.

El Carmen ikastetxeko bi gelek osatzen dituzte taldeak. 16 eta 18 urte bitarteko gazteak dira, ez dute DBH titulurik eta horregatik daude El Carmen ikastetxean HHE ikasten. Ikastetxe honek lantegi asko egiten ditu, tartean, komunikazioari buruzkoa eta lantegi horretatik jarri ziren gurekin harremanetan irratsaioa egiteko.

6. EGUNAK ETA ORDUTEGIA

2008ko martxoa.

Goizeko taldea:

Martxoak 07.....2.00 h (10:00-12:00h).

Martxoak 10.....2.00 h (10:00-12:00h).

Martxoak 13.....2.00 h (10:00-12:00h).

Arratsaldeko taldea:

Martxoak 07.....2.00 h (15:00-17:00h).

Martxoak 10.....2.00 h (15:00-17:00h).

Martxoak 13.....2.00 h (15:00-17:00h).

7. KOKAPENA

HHEko El Carmen ikastetxeko instalazioak.
Komunikazio-lantegiko gela.


8. MATERIALA

Materiala:

- Irrati-materiala.
- Ordenagailua.
- Edizio-programa.
- Bulegoko materiala.

Azpiegiturak:

- Lan egiteko gela.
- Irrati-gela.
- Grabaketa-gela.



Lantegiko lan-prozesuaren irudiak.

9. EBALUAZIO-ADIERAZLEAK

Lantegia ebaluatzeko parte-hartzaileekin egindako ebaluazioaz gain, honako faktore hauek hartuko ditugu kontuan:

- Parte-hartze aktiboaren maila (bertaratzea, motibazioa...).
- Gazteen gogobetetze-maila (gazteen ebaluazioa).
- Harreman eta enpatia maila.
- Taldearen harreman pertsonalak.
- Taldearen hausnarketa-gaitasuna.
- Sormen-gaitasuna.
- Taldearen espiritu kritiko eta autokritikoaren maila.
- Lantegian egindako gauzen eta emaitzen maila.

10. LAN-ERANSKINAK

Hurrengo eranskinetan lantegiaren saio bakoitzeko bidai orria topatuko duzu.

1eranskina: 1. saioa

2eranskina: 2. saioa

3eranskina: 3. saioa



11. KONTAKTUA

Lantegi hau **IA18** egitasmoaren barruan kokatzen da. **IA18** ekintza kulturalak sustatzeko programa da. Nerabeei ematen die hitza proposamen desberdinak aurkeztuz eta hiritar aktibo gisa haien munduaren definizioan parte har dezaten bultzatuz: haien imaginarioa, baloreak, interesak, kezak, etab.

IA18

Aretxaga, 10

48003 Bilbao

946 053 468

www.casitengo18.com

info@casitengo18.com

Fitxa hau Creative Commons 3.0 España baimenarekin erregistratu da. Aske zara zure taldearekin lantegi hau egiteko, baina gogora ezazu ez dagoela formula magikorik eta hobe dela edukiak zure testuinguruaren eta taldearen beharren arabera moldatzea.



<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/legalcode.es>

Fitxa hau Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzarekin egin da.





1. SAIOA

HELBURUAK	Espiritu kritikoa eta autokritikoa sustatzea. Parte-hartzaileak “euren bizitzaren erreportari” lanetan jartzea.
------------------	---

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
10 min.	PKTaren aurkezpena.	PKT.	PKT.
10 min.	Lantegia azaldu.	Lantegiaren <i>planing-a</i> Irrati-komunikazioa.	Baimen-orria.
30 min.	Komunikabideen inguruko hausnarketa.	Nola sortzen dira albisteak. Albiste-motak. Komunikatzeko moduak.	Irrati-gela Grabaketa-gela Irrati-materiala.
40 min.	Eztabaida.	Parte-hartzaileen kezka eta ardurak.	
30 min.	Gazteen albisteak identifikatu.	Esperientzia eta bizipen pertsonalak.	

PKTaren aurkezpena-----**10 min.**
Aldizkaria azaldu. Edukien, kolaborazioen, espirituaren... azalpen laburra.

Lantegia azaldu-----**10 min.**
Lantegia azaldu: Geurea irratiz igortzen. Lantegia zertan datzan azaldu, planing-aren azalpen laburra.

Komunikabideen inguruko hausnarketa-----**30 min.**
Komunikabideei buruzko eztabaida, albisteen inguruko hausnarketa, nola sortzen diren, zein eduki dituzten, zer eta nola igortzen den.

Eztabaida-----**40 min.**
Parte-hartzaileen kezka eta arazoei buruz hitz egingo dugu, euren esperientziak eta interesatzen zaizkien gauzak komentatuko ditugu. Zer eta nola komunikatu nahi duten eztabaidatuko dugu.

Gazteen albisteak identifikatu-----**30 min.**
Irratsaioko protagonista izango diren esperientzia pertsonaletatik abiatuta, beraien albisteak identifikatu.
Banaka edo interes berdintsuak dituzten talde txikietan lan egiteko aukera.



2. SAIOA

HELBURUAK

Inguruko mundua **aztertze**ko duten **gaitasuna** suspertzea.
Gazteen **sormen-gaitasuna** bizkortzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
30 min.	Argibide-hitzaldia.	Irratsaioa Irratsaioa egitea eta edukiak.	Bulegoko materiala. Sostengu teknikoa emango digun materiala.
15 min.	Brain-storming-a.	Interesa duten edukiak.	
15 min.	Gidoia sortu.	Albiste desberdinak komunikatzeko formatuak: elkarrizketa, iragarkia...	
30 min.	Testuak egin.		
20 min.	Programa-formatuak probatu.		Irrati-gela Grabaketa-gela Irrati-materiala
10 min.	Taldeko argazkia egin.		Argazki-kamera.

Argibide-hitzaldia----- **30 min.**
Irratsaio bat egitearen inguruko zenbait argibide emango ditugu.

Brain-storming-a----- **15 min.**
Landu beharreko edukiak eta albisteak aukeratzen saiatzeko ideia-zaparrada.

Albistearen gidoia sortu----- **60 min.**
Programaren gidoiaren zirriborroa egin eta izenburua pentsatu. Ideia komunikatzeko egitura egokiena aukeratu eta formarekin eta edukiarekin bat datorren izena erabaki.

Testuak egin----- **30 min.**
Testuak egingo ditugu eduki eta albiste gehiago izateko.

Programa-formatuak probatu----- **20 min.**
Gidoia eta albisteak programa-formatu desberdinekin probatu eta egokiena zein den erabaki.

Taldeko argazkia egin----- **10 min.**
Aldizkariko azalean agertuko den taldearen argazkia egin.



3. SAIOA

HELBURUAK

Gazteei euren jarduerak aurrera ateratzeko **tresnak eskaintzea**.
Hiritar aktibo gisa edukien sormenean eta zabalkundearen bizkortzea.

DENBORA	EKINTZAK	EDUKIAK	MATERIALA
15 min.	Testuak bukatu.	Testu pertsonalak.	Bulegoko materiala. Irrati-gela
15 min.	Behin betiko gidoia.	Formatu osoa.	Grabaketa-gela Irrati-materiala.
30 min.	Programaren proba.	Kontu teknikoak.	
50 min.	Programaren grabaketa.	Eszenaratzea.	
10 min.	Lantegiaren balorazioa.		

Testuak bukatu-----15 min.

Albisteak bukatu. Albisteen ordena eztabaidatuko dugu eta denboren inguruko erabakiak hartuko ditugu.

Behin betiko gidoia-----15 min.

Gidoiaren behin betiko bertsioa egin eta programaren behin betiko izena aukeratuko dugu.

Programaren proba-----30 min.

Igortzen hasi aurretik, programaren proba egingo dugu. Tresnen erabilera praktikoaren inguruko zenbait alderdi tekniko landuko ditugu.

Programaren grabaketa-----50 min.

Landutakoa eszenaratzea. Programa zuzenean igorriko dugu eta bitartean dena grabatuko dugu.

Lantegiaren balorazioa-----10 min.

Lantegiaren azken balorazioa.